

ULERMENA: IZAKI BIZIDUNAK ETA BIZIGABEAK


1. Irakurri testua eta egin ariketak.

IZAKI BIZIDUNAK ETA BIZIGABEAK

Naturan, izaki bizigabeak eta izaki bizidunak bereizten ditugu.

Izaki **bizigabeak** jaiotzen, hazten, ugaltzen eta hiltzen **EZ** diren gauzak dira. Gauza bizigabe batzuk naturalak dira, gizakiok ez ditugulako fabrikatu (harriak, eguzkia, hodeiak, ura ...). Beste gauza batzuk, artifizialak dira gizakiok fabrikatu ditugulako (adibidez: erratzak, arkatza ...)

Izaki **bizidunak** jaio, elikatu, hazi eta ugaldu egiten diren gauzak dira.



Izaki bizidunen taldea **landareek** eta **animaliek** osatzen dute. Gizakiok ere izaki bizidunak gara.

Animaliek elikagaiak jan behar dituzte.

Landareek, berriz, ura, airea, eguzki-argia eta lurreko substantziak hartzen dituzte elikatzeko.

2. Erantzun galdera hauei:

- Zer dira izaki bizigabe naturalak?

- Zer dira izaki bizigabe artifizialak?

- Landareak zerez elikatzen dira?

3. Esan esaldi hauek egia (E) edo gezurra (G) diren.

- Izaki bizigabeak jaio eta hil egiten dira. ____
- Harriak izaki bizigabeak dira. ____
- Inurriak izaki bizigabeak dira. ____
- Izaki bizidunak jaio, elikatu, hazi, ugaltu eta hil egiten dira. ____
- Landareak eta animaliak izaki bizidunak dira. ____
- Bizigabe batzuk naturalak dira eta beste batzuk artifizialak. ____




4. Lotu irudi bakoitza dagokion hitzarekin:

JAIO

ELIKATU

UGALDU

HIL



5. Eraman irudi bakoitza dagokion laukira.

BIZIDUNAK

BIZIGABEAK



6. Ordenatu hitzak esaldiak sortzeko:

✓ eta dira. bizigabeak Bizidunak bizi elkarreraginean

✓ gara. izaki bizidunak Gizakiak

✓ Elikatzea prozesua barneratzeko janaria da.

✓ Ugalketari esker izaki kumeak bizidunek dituzte.